# AKTA

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA**: 2006ko apirilaren 25a, asteartea.

**LEKUA**: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA**: Lehena

**HASIERA-ORDUA**: 19:07 **AMAIERA-ORDUA**: 19:12

**BERTARATUAK**:

**Alkatea**
Ramon Etxeberria Aldaz

**Zinegotziak**
Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ainhoa Leunda San Sebastian, Martxiel Genoba Solaberrieta, Asier Yeregi Campos, Mª Elena Legarra Alfaro, Eugenio Cotado Iturain, Aurora eta Azkue Mujika.

**Idazkari-Kontuhartzailea**
Jon Carrera Jauregi

**Bertaratu ez direnak**
Jesus Jose Rodriguez Pousa, herritik kanpo dagoelako.

# Aztergai zerrenda

1.- Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2006ko martxoaren 28ko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.

2.- "EPAILE ARTEAN" Euskal Herriko Bake Epaileen Elkarteak aurkeztutako mozioa, Erregistro Zibileko Legea eta Erregelamenduaren aldaketari buruz.

3.- AMNESTY INTERNACIONAL Taldeak aurkeztutako mozioa, Armak kontrolpean kanpainaren barruan.

4.- PSE-EE Udal taldeak aurkeztutako mozioa, Irisgarritasun Legea betetzeko behar den finantzazioari buruz.

5.- PSE-EE Udal Taldeak aurkeztutako mozioa, Pablo Ibarrek beste errekurtso bat aurkezteko laguntza emateari buruz.

6.- Eskariak eta galderak.

# Esan-eginak

## 1. IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO MARTXOAREN 28KO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

**ONARTZEA,** 2006ko martxoaren 28ko Ohiko Bilkuraren aktaren zirriborroa.

**2.- "EPAILE ARTEAN" EUSKAL HERRIKO BAKE EPAILEEN ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ERREGISTRO ZIBILEKO LEGEA ETA ERREGELAMENDUAREN ALDAKETARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak hitzez hitz honela dio:

"Badakizuenez, bake-epaitegietako zeregin garrantzitsuenetakoa eta ezagunenetakoa erregistro zibila da, hau da, erregistro zibila dagoen udalerrian gertatzen diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak inskribatzea.

Urtarrilaren 10eko 4/1991 Legearen bidez, aurreko irizpide orokor hori aldatu egin zen eta onartu egin zen, gurasoek hala eskatuta, jaiotza-inskripzioak gurasoen bizilekuan ere egin zitezkeela.

Horrela, gestioa eta zerbitzua hobetu egin ziren, batetik Ospitaleak kokatuta zeuden erregistro zibilek jaiotza-inskripzio gutxiago egingo zituztelako, eta bestetik, gurasoek errazago eskatu eta jasoko zituztelako jaiotza-inskripzioak bizi ziren udalerrietan.

Gaur egun antzerako zerbait gertatzen da heriotzekin, izan ere, gehienetan ospitaletan gertatzen dira, eta senideei oztopoak eta trabak sortarazten zaizkie, ospitaleak dauden erregistro zibiletara jo behar dutelako, edo bizi diren udalerriko epaitegien bidez eskatu behar dituztelako ziurtagiriak.

Horregatik, alkatetzari proposatzen diot udalak osoko bilkuran akordio hauek lortzeko:

1. Estatuko Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibileko Erregelamenduaren aldaketa eskatzea. Horrela, jaiotzekin gertatzen den bezala, heriotzak ere bizi izan diren udalerriko erregistro zibilean erregistratu ahal izango dira.

2. Udaleko osoko bilkuran onartutako akordioa Justizia Ministeriora, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailera eta Diputatuen Kongresuko Justiziako Batzordera bidaltzea."

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto: **ONARTZEA** "EPAILE ARTEAN" Euskal Herriko Bake Epaileen Elkarteak aurkeztutako mozioa, Erregistro Zibileko Legea eta Erregelamenduaren aldaketari buruz, udalbatzarraren ebazpen honen adierazpen zatian agertzen den terminoetan.

## 3.- AMNESTY INTERNACIONAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ARMAK KONTROLPEAN KANPAINAREN BARRUAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak hitzez hitz honela dio:

"Koldo Andoni Casla Salazar, 72.496.495-N NANarekin, Donostiako AMNESTY INTERNATIONAL Taldeko koordinatzailea.

**Azalpena:**

Kontrolatu gabeko armen ugaltzeak giza koste izugarria du, bereziki, munduko pertsona txiroen artean. Ondorengo hogei eta hamar minutuetan, hogei eta hamar pertsona hilko dira biolentzia armatua dela eta; gehien bat, Hegoaldeko lurraldeetan. Mundu guztian zehar, 639 milioi arma arin mugitzen dira, arma bat hamar pertsonako. Azken hamarkadetan, gatazka armatuetan hildakoen kopuruak izugarri egin du gora, oso kaltegarriak diren eta, biztanleria zibilean, ondorio izugarriak sortzen dituzten armak erabiltzeagatik; esaterako, mina antipertsonak, zatitzen duten bonbak edo fusil automatikoak edo semiautomatikoak, minutu batean, 600 bala jaurtitzeko gai dena.

Armen ugaltzeak eta hauek erraz eskuratu ahal izateak biolentzia kaleetara eraman dute, baita etxeetara ere. Afrikan, HIESAren ondoren, 15 eta 44 urte bitartekoen artean, heriotza gehien sortzen duen arrazoia da pertsonen arteko biolentzia. Gerra da hirugarrena. Hildakoen kopuruaz gain, hanka ebaki behar izaten zaien edo zauritzen diren pertsonen kopurua gehitu beharra dago. Hiltzen diren pertsonen hirukoitza dago egoera honetan.

Biolentzia armatuaren beste ondorioetako batzuk dira desplazamenduak, bizitzeko baliabideen galera, osasun zerbitzua eta hezkuntza izateko oztopoak eta sexu indarkeriaren handitzea. Biolentzia armatuak min fisikoak, psikologikoak eta emozionalak sortzen dizkie milioika familiei: gizonak indarrez errekrutatzen dituzte, emakumeek zaharrak, umeak eta gaixoak bere gain hartu behar izaten dituzte eta, gainera, zenbait kasutan, sexu indarkeria pairatzen dute; umeak bahituak izaten dira eta jendea hiltzera behartzen dituzte. Ume neskak, aldiz, morroi sexual moduan erabiltzen dituzte. Munduan 300.000 ume soldadu dagoela kalkulatzen da.

Egoera honen aurrean, **Amnesty Internationala, Intermon Oxfam** eta **Arma Arinen aurkako Nazioarteko Ekintza Sarea (IANSA)**, *Armak kontrolpean* nazioarteko proiektuan batera lanean ari gara. Kanpaina honek 160 lurralde baino gehiagoetako erakunde eta pertsonen babesa du. Xedea honako hau da: 2006rako, **Armen Merkatuari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren** bidez, armen merkatuko kontrol ezarekin amaitzea.

Munduko gobernu guztiak dira armen kontrolaren erantzule, hiritarrak babesteko euren mugen barne armak baitituzte eta hauek, gainera, esportatzen dituzte; hortaz, biztanleria zibilaren edo giza eskubideen aurkako gehiegikeriak egiten ez direla, bermatu behar dute. Munduko herrialde aberatsenak merkatu orokor honen kontrolaren erantzule nagusiak izan behar dute. Ezin dugu ahaztu, era berean, herrialde hauek direla armen hornitzaile nagusiak; honela, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko kide iraunkorrek -Estatu Batuak, Txina, Frantzia, Errusia eta Erresuma Batua- munduko arma konbentzionalen esportazioen %80 baino gehiago, bere gain dute; esportazio hauek giza eskubideak urratzen dituzte.

Kanpainak eremu desberdinetan egin daitezkeen ekintza ugari proposatzen ditu, armen giza kostea gutxitzeko helburuarekin. Gaur egun arte, Hegoaldeko eta Iparraldeko gobernuek ez diote egoerari beharrezko zehaztasunez eta larrialdiz erantzun. Gai honetan aurrerapenak egin nahi badira:

- Mundu guztiko gobernuek biolentzia armatua gutxitu dadin borrokatu behar dute, egoera hau pairatzen duten lurraldeetan, biztanleria zibila babestuz eta armak biltzeko eta suntsitzeko programak bultzatuz.
- Nazioarteko komunitateak gogorarazi behar du eta irizpideak nola baliabideak martxan jarri, nazioarteko armen merkatua kontrolatzeko, jada existitzen diren mekanismoak indartuz; esaterako, Europar Jarrera Kodigoa.
- Gobernuek, bestalde, euren armen transferentzien kontrola eta mekanismoen gardentasuna hobetuko dituzten legeak sortu behar dituzte, giza eskubideetan gehiegikeriak eman ez daitezen eta Nazioarteko Giza Eskubideak urratu ez ditzaten.

Armak Kontrolpean kanpainak Armen Merkatuaren inguruko Nazioarteko Hitzarmena lortu nahi du; hitzarmen honen bidez, trafikatzaileak eta bitartekariak kontrolatuko dituen mekanismoak bultzatu nahi dira, hirugarren herrialdeen bidez, armen transferentziak egin daitezen saihestu eta armen konfiskazioa kontrolatu.

Esandako guztia aintzakotzat hartuz, Donostiako Amnistia Internazionaleko Taldeak honako hau eskatzen du:

1. Orioko Udaleko Udalbatzak Armak Kontrolpean kanpainan sar dadin.

2. Espainiar Estatuko Gobernua presionatu dezala honako hauek lortzeko:

a. Armen Merkatuaren lege baten onarpena; honek Europar Jarrera Kodigoarekin bat etorri behar du eta kontrol handiagoa eta esportazioen gardentasuna exijitu behar ditu.

b. Jarrera aktiboagoa bat, nazioarteko foroetan, ekimenak bultzatu eta proposatu ditzan. Nazioarteko Armen Hitzarmena izan daiteke ekimen horren adibide bat. Ekimen hauen xedea izan behar da mundu mailako armen merkatuetan, kontrol handiagoa izatea, armen ugaritzeak dakarren giza kostea gutxitzeko helburuarekin."

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]: **ONARTZEA** AMNESTY INTERNACIONAL Taldeak aurkeztutako mozioa, Armak kontrolpean kanpainaren barruan, udalbatzarraren ebazpen honen adierazpen zatian agertzen den terminoetan.

## 4.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, IRISGARRITASUN LEGEA BETETZEKO BEHAR DEN FINANTZAZIOARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak hitzez hitz honela dio:

" El Grupo Municipal del PSE-EE en el Ayuntamiento de Orio presenta la siguiente MOCIÓN sobre la financiación necesaria para el cumplimiento de la Ley de Accesibilidad, para su debate y aprobación en Pleno.

Exposición de motivos

La Ley para la Promoción de la Accesibilidad de la Comunidad Autónoma Vasca aprobada en 1997 establece en su art. 13.1 que "Para garantizar y promover la accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificios, transportes y sistemas de información y comunicación ya existentes, de titularidad, uso o servicio público, el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales, los Ayuntamientos y demás entidades públicas elaborarán programas cuadrienales para la promoción de la accesibilidad. Su objeto será la adaptación progresiva de los elementos mencionados a las condiciones de accesibilidad previstas en esta ley y en sus normas de desarrollo."

Transcurridos ocho años desde la aprobación de la Ley, y según datos del propio Gobierno Vasco, sólo el 47% de los municipios han realizado su obligación de elaborar los planes de accesibilidad. Siendo el territorio de Gipuzkoa dónde se ha alcanzado la cifra más alta, 60%, y Araba la más baja, 33%. Bien es cierto que las tres capitales de los territorios históricos, San Sebastián, Vitoria y Bilbao, ya los han elaborado.

Es obvio, por tanto, que la integración y la participación en la vida social y comunitaria, en muchas ocasiones, se ve dificultada e impedida por la persistencia de barreras, tanto físicas como de comunicación, que imposibilitan un normal desenvolvimiento de las personas.

En la reunión celebrada por la Comisión Vasca Permanente sobre la Accesibilidad, solicitamos la representación de las personas con discapacidad física y la de los Ayuntamientos, y una reflexión seria y profunda sobre las dificultades que estaba teniendo el desarrollo de esta Ley.

Por un lado, los municipios con escasa población carecen de recursos técnicos y financieros para desarrollar las medidas, por otro lado, las ciudades deben abordar múltiples actuaciones y sólo reciben ayudas como máximo de un 10% del total del gasto a realizar. Es

el esfuerzo económico y técnico que se exige a los municipios la causa que explica las dificultades para avanzar en la mejora de la accesibilidad tanto en los edificios públicos como en los espacios urbanos. Esta reflexión fue compartida por el resto de colectivos, entidades e instituciones presentes.

Resulta obvio que el modelo establecido no es el adecuado y que no ha conseguido un mínimo de los objetivos marcados. Resulta, por tanto, urgente e inevitable adoptar medidas correctoras que permitan cumplir con las obligaciones legales previstas.

En este sentido, el propio art. 13.3 de la Ley ya establece que deberán ser las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco quiénes consignarán partidas presupuestarias para la financiación de los programas de la promoción de la accesibilidad.

Analizada esta cuestión en la Comisión Vasca Permanente sobre la Accesibilidad, se valoró que la distribución actual de los esfuerzos presupuestarios eran desmesurados para los municipios, 90% los Ayuntamientos y 10% subvención del Gobierno Vasco, y se aprobó por consenso dirigirse al Consejo Vasco de Finanzas para que al analizar y proponer que en la distribución presupuestaria de la Ley de Aportaciones tuviera en cuenta el esfuerzo de inversión que exige el cumplimiento de la Ley de Accesibilidad a los Ayuntamientos y se previera una cantidad para esta cuestión.

Por tanto, proponemos al Ayuntamiento en Pleno, la adopción del siguiente

ACUERDO

Solicitar al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa que en la próxima reunión del Consejo Vasco de Finanzas se contemplen las necesidades financieras de los municipios vascos para desarrollar y hacer cumplir la vigente Ley de Accesibilidad, Ley 20/97 de 4 de diciembre. "

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]: **ONARTZEA** PSE-EE Udal taldeak aurkeztutako mozioa, Irisgarritasun Legea betetzeko behar den finantzazioari buruz, udalbatzarraren ebazpen honen adierazpen zatian agertzen den terminoetan.

**5.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, PABLO IBARREK BESTE ERREKURTSO BAT AURKEZTEKO LAGUNTZA EMATEARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak hitzez hitz honela dio:

" El Grupo Municipal del PSE-EE en el Ayuntamiento de Orio presenta la siguiente **MOCIÓN** sobre el **apoyo para la interposición de un nuevo recurso por Pablo Ibar,** para su debate y aprobación en Pleno.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El pasado 9 de marzo, el Tribunal Supremo de Florida ratificó la condena a la pena de muerte impuesta el 28 de agosto de 2000 contra Pablo Ibar, pese a que un mes antes fuese anulada la sentencia dictada contra un presunto cómplice.

Una parte importante de miembros de la Corte Suprema de Florida ha reconocido que ha existido una deficiente asistencia jurídica por parte del abogado encargado de la defensa de Ibar por lo que su derecho a la defensa y a un juicio justo con todas las garantías no habría sido objeto de la especial tutela.

Recientemente, la familia de Pablo Ibar se ha reunido con miembros del Gobierno del Estado y con representantes institucionales del País Vasco para recabar apoyo tanto moral como económico para afrontar un nuevo recurso desde el pleno convencimiento de la inocencia del joven condenado. El nuevo recurso es el recurso de la esperanza, la última oportunidad para revisar el caso y anular la sentencia de muerte que pesa sobre Pablo Ibar.

Este Ayuntamiento quiere unirse a la familia de Pablo Ibar y mostrarle su apoyo institucional, al tiempo que desea impulsar la recaudación de fondos suficientes para hacer frente a los gastos necesarios para hacer posible la interposición de un nuevo recurso que se cifran en 250.000 dólares.

A tal efecto, el Pleno del Ayuntamiento de Orio aprueba los siguientes

ACUERDOS

1º) El Ayuntamiento de Orio manifiesta su solidaridad con Pablo Ibar, en la convicción de su inocencia, y muestra su apoyo institucional a la familia para que pueda interponer un nuevo recurso que garantice plenamente su derecho a recibir una asistencia jurídica adecuada.

2º) El Ayuntamiento de Orio hace un llamamiento a la ciudadanía guipuzcoana para que envíe cartas de apoyo a Pablo Ibar a la prisión donde se encuentra internado.

3º) Asimismo este Ayuntamiento hará llegar la presente Moción a Pablo Ibar, a la Corte Suprema de Florida, al Fiscal General de Florida y al Gobernador de Florida.

4º) Por último este Ayuntamiento vuelve a expresar su más rotundo rechazo a la pena de muerte y pide su erradicación de todos los ordenamientos jurídicos.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]: **ONARTZEA,** PSE-EE Udal Taldeak aurkeztutako mozioa, Pablo Ibarrek beste errekurtso bat aurkezteko laguntza emateari buruz udalbatzarraren ebazpen honen adierazpen zatian agertzen den terminoetan.

## 6. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Horrenbestez, eta publikoan zeuden inork hitza hartu gabe, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATEA** **IDAZKARIA**